

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2015/2016 ikasturtea

IRLANDA ETA EUSKAL HERRIKO IRAKASKUNTZA- IKASKUNTZA PROZESUEN AZTERKETA IKTEN BITARTEZ

Egilea: Cortázar Santamaría, Ane

Zuzendaria: Romero Andonegui, Ainara

Leioan, 2016ko maiatzaren 30ean

EGILEAREN ONIRITZIA

AURKIBIDEA

Sarrera	2
1. Gaia kontzeptualki kokatuz	3
1.1 IKTak hezkuntza sisteman	3
1.1.1 IKTak eta Haur Hezkuntza.....	4
1.2 Ikerketan parte hartzen duten hezkuntza metodologiak	4
1.2.1 Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI).....	4
1.2.2 Hezkuntza tradizionala	7
1.3 Interkulturalitatea eskolan	8
2. Metodologia.....	9
2.1 Helburuak	9
2.2 Hipotesiak.....	9
2.3. Metodoa.....	9
2.3.1 Lagina	9
2.3.2 Tresnak	13
2.3.3 Dublineko Saint Brigid's eskolako proiektua	18
2.3.4 Bilboko Felix Serrano eskolako proiektua	19
3. Emaitzak	21
4. Ondorioak.....	23
5. Bibliografia.....	24

IRLANDA ETA EUSKAL HERRIKO IRAKASKUNTZA- IKASKUNTZA PROZESUEN AZTERKETA IKTEN BITARTEZ

Ane Cortázar Santamaría

UPV/EHU

Gradu Amaierako Lan honetan, batetik, Irlanda eta Euskal Herriko ikastetxe biren hezkuntza metodologia ezberdinen azterketa gauzatu da, horretarako bideoen bidezko analisisa erabiliz. Bestetik, Irlandako hezkuntza tradizionala eta Euskal Herriko Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) metodologiaren ezaugarriak ezagutarazteko, herrialde bakoitzaren kultura edukitzat duten proposamen didaktikoak garatu dira. Hezkuntza-proposamen horiek ere Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologiararen (IKT) bitartez garatu dira. Proposamenak martxan jarri dira testuinguru bietan, Irlandan POIren bitartez Euskal Herriko kultura erakutsiz eta Euskal Herrian, Irlandako kultura metodologia tradizionalaren bitartez landuz. Amaitzeko, testuinguru bietako esperientziak ebaluatuak izan dira irakasle eta ikasleen iritzia jasoz, eta lana bere osotasunean argitaratzeko webgune bat sortu da.

Irlanda, Euskal Herria, IKT, hezkuntza-metodologia, proposamen didaktikoak

En este Trabajo de Fin de Grado, por un lado, se han investigado las diferentes metodologías educativas de dos escuelas de Irlanda y del País Vasco, empleando el análisis mediante videos. Por otro lado, para dar a conocer las características de la educación tradicional de Irlanda y el Aprendizaje Basado en Proyectos (ABP) del País Vasco, se han desarrollado unas propuestas didácticas con la cultura de cada país como contenido. Dichas propuestas se han desarrollado también a través de las Tecnologías de la Información y la Comunicación (TIC). En Irlanda se ha puesto en marcha la propuesta que enseña la cultura vasca mediante ABP, y en el País Vasco se ha puesto en marcha el proyecto que muestra la cultura irlandesa mediante una metodología tradicional. Para concluir, las experiencias de ambos contextos han sido evaluadas recogiendo opiniones del profesorado y alumnado, y para publicar el trabajo en su totalidad se ha creado una web.

Irlanda, País Vasco, TIC, metodología pedagógica, propuestas didácticas

In this Final Degree Assessment, on the one hand, different educational methodologies of Ireland and The Basque Country have been investigated by the analysis through videos. On the other hand, in order to make the characteristics of Ireland's traditional education and Basque Country's Based Project Learning (BPL) known, didactic proposals have been developed, with each country's culture as content. Those proposals have also been developed by Information and Communication Technologies (ICT). The proposals have been carried out, in Ireland, showing the Basque culture through BLP and in The Basque Country, showing the Irish culture through traditional education. To sum up, both contexts' experiences have been evaluated getting the opinions of the teachers and the students, and to publish the work in its entirety, a website has been created.

Ireland, Basque Country, ICT, teaching methodology, didactic proposals

Sarrera

IKTak gaur egun indar handiarekin datozen tresnak dira, azkeneko urteetan eskola gehienetan sartzan saiatu direnak, hala nola, arbela digitalak, ordenagailuak edota tabletak. Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologia (IKT), erabateko abantailak eskaintzen dizkigute, irakaskuntza-ikaskuntza dinamikoago bat eskainiz ikasgeletan zehar. Baina IKTak ez dira irakaskuntza-ikaskuntzarako tresna lagungarriak bakarrik, informazioa jasotzeko tresna aproposak ere badira.

Beraz, ikerketa honetan IKTek ematen dituzten abantailak probetxatuz, bi hezkuntza sistema (Irlanda eta Euskal Herria) ezberdinetako metodologiak (Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza eta Hezkuntza Tradizionala) aztertu nahi izan dira eta horien ezaugarriak ezagutzera eman.

Horrela bada, lanaren lehen atalean, IKTek hezkuntza esparruan duten eragina aztertu da eta bereziki Haur Hezkuntzan nola integratu daitezkeen. Horretaz gain, ikerketa lan honetan landuko diren hezkuntza metodologia bien (POI eta hezkuntza tradizionala) analisia gauzatu da, horien ezaugarriak eta faseak zehaztuz. Bukatzeko atal honetan, kultura aniztasunak hezkuntza formalean izan behar duen papera azpimarratzen da.

Lanaren bigarren atalean, garatutako ikerketa zehazten da; helburuak, hipotesiak eta metodoa. Aipatzekoa da Irlandako eta Euskal Herriko hezkuntza sistemen metodologia IKTen bitartez aztertzeko, Gil ikerlariak (Gil, 2011) proposaturiko grabaketen metodoa erabili dela. Bestalde, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) eta Hezkuntza tradizionala beste herrialdeetan ezagutzera emateko, Irlanda eta Euskal Herriko kultura ondarea edukizat duten proposamen didaktikoak diseinatu eta garatu dira, eta horiek azalertzeko blog bat sortu da. Garatutako proposamenak martxan jarri dira ere, herrialde batetako kultura, herrialde horretan lantzen duten metodologiaren bitartez praktikan jarritz.

Bukatzeko, ikerketa lan honen azken ataletan, emaitzak eta ondorioak biltzen dira. Emaitzak, bi herrialdeetako irakasleei eginiko galdetegien eta ikasleek eginiko irudien bitartez jaso dira, proiektuaren helburuak eta hipotesiak ere bete diren ala ez egiaztatuz. Horren ostean, jasotako emaitzetatik abiatuz, ikerketa lana osoaren ondorioak atera dira.

“Enseñar es aprender dos veces.” - Joseph Jubert

1. Gaia kontzeptualki kokatuz

Lana hasi aurretik, IKTen integrazio egokia burutzeko eta landutako metodologiaren ezaugarriak ezagutzeko, literatura zientifikoaren berrikuspena egin da. Horrela bada, hiru arlo nagusi landu dira; Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologia (IKT), ikerketa honetako ikastetxeen hezkuntza metodologiak -Proiektuetan Oinarritutako Irakaskuntza (POI) eta hezkuntza tradizionala- eta kultura artekotasuna.

1.1 IKTak hezkuntza sisteman

IKT definituz

IKTen kontzeptua aztertzearen helburuarekin, IKTen definizioan izandako bilakaera aztertu da.

Horrela, 1998an, Julio Cabero ikerlariak IKTak informatikaren, mikroelektronikaren eta telekomunikazioaren bitarteko basikoen inguruan dabilzaten tresnak bezala definitu zituen. Hala ere, IKTek hiru bitarteko horien inguruan ez zutela era isolatuan bira egiten, baizik eta interaktiboki eta interkonektaturik bira egiten zutela deskribatu zuen Caberok. Hortaz, horrek errealitate komunikatibo berriak sortzea eragiten zuela ondorioztatu zuen.

Ildo horretatik, 2011ean Hezkuntza, Zientzia eta Kulturako erakundeak (UNESCO) emandako definizioa ere nabarmendu daiteke:

IKTak informazioa maneiatzeko eta komunikazioa errazteko erabiltzen diren bitarteko tekniko guztiak dira, ordenagailuen hardware-a eta sareak barne hartuta, zein beharrezkoa den software guztia ere. Beraz, IKTak informazioaren teknologia bere baitan hartzen du, baita telefonia, transmisio bitartekoak eta era guztietako prozesatzaileak zein audio eta bideoen bitartekoak ere. Komunikazioen papera nabarmentzen da (linea telefoniko eta seinale inalambrikoak) gaur egungo informazioaren teknologian (Wilson et al., 2011).

Bukatzeko, Cobo Román-k (2009) IKTen kontzeptuaren gaineko definizioak aztertu ondoren, definizio berri bat proposatu zuen:

IKTak editatzea, ekoiztea, biltzea, aldatzea eta protokolo amankomunak dituzten sistema desberdinen artean datuak transmititzea ahalbideratzen dituzten tresna teknologikoak (hardware-a eta software-a) dira. Informatika, telekomunikazioak eta sareak integratzen dituzten aplikazio horiek, komunikazio eta kolaborazio interpersonala eta multidirekzionala errazten dute. Tresna horiek rol garrantzitsua hartzen dute jakintzaren sorkuntzan, trukean, difusioan, gestioan eta sarbidean.

IKTak historian

Azkeneko urteetan IKTen erabilera areagotu egin da esparru guztietan, eta horrek gizabanakoen artean ezinbesteko tresna izatea eragin du.

Baina IKTak ez dira tresna berritzaile bat, baizik eta urte asko egon direla gizakien

bizitzetan murgilduta.

Hala bada, Puga autoreak (2006) egiten duen bilakaera historikoa jarraituz, 60. hamarkadan, telebistaren eta irratiaeren sorrerarekin, komunikazioaren aro berri bat sortu zen, gizakien bizitzan izugarrizko eragina izan zuena. Horrekin batera, urte batzuk igaro ondoren, 70. hamarkadaren amaieran ordenagailuak sortu ziren, norbanako heziketaren arloan aukerak zabalduz.

Beraz, 80. hamarkadan gizartean ematen ari zen IKTen zabalkundea zela eta, hezkuntzan barnerratzeko lehenengo ordenagailuak sartzeko planak garatzen hasi ziren.

Hala ere, 90. hamarkadara arte itxaron behar izan zuten eskola gehienek ordenagailuak izateko.

Dena den, hezkuntza-teknologia horrek denboran zehar irabazi duen garrantziaz gain, IKTen sorrerarekin ezer berririk lortu denaren aldeko autoreak badira:

“IKTak ez dira hezkuntza berritzeko sartu, baizik eta aurretik existitzen zena indartzeko. Eskoletara heltzen dira dauden praktika didaktiko menderatzaileekin, aldaketak inplikatu ditzakeen proiekturik eta oinarri formatiborik gabe. Horrenbestez, aldaketa horiek ematekotan, ez dira esanguratsuak ez ikasteko ezta irakasteko ere” (Puga, 2006: 544).

Beraz, aurreko ataleko definizioak kontutan hartuz, IKTen erabilpena eskolan eta ikaskuntza prozesuan zehar hedatua eta baliagarria izan dadin, irakasleek ikasleei aukerak eman behar dizkiete. Izan ere, haiek izango dira ikasleei IKTak haien ikaskuntzaren lehenengo momentutik eskuragarri izatea ahalbidetu ditzaketen bakarrak.

Horretarako, irakasleek, ikasleen ikaskuntza giroan zehar IKTak poliki-poliki sartuko dituzte, erabateko trebetasunak sustatu ditzaten. Gainera, irakasleek ere IKTen abantailez baliatuta, ikasleek trebetasun horiek sustatzeko lagungarriak izango diren material didaktikoak sortu ditzakete. Horrela, IKTen erabilpena ikasgela osoan zehar sustatuko da.

1.1.1 IKTak eta Haur Hezkuntza

Euskal Herriko Haur Hezkuntzako curriculumak esaten duenez,

umeek ikasten eta komunikatzen laguntzeko teknologia erabiltzen hasi behar dute. Izan ere, gailu teknologikoak erabiltzen hasiz, haien komunikazio-ahalmena balioetsiko dute eta arian-arian haiek informazioa eskuratzeko, ikasteko eta plazerra lortzeko erabiliko dituzte (Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Sailak, 2016).

Horretarako, Zorraquino eta Alexandre (2009) autoreen esanetan oinarrituz, IKTak ez dira era isolatu batean sartu behar ikasgelan, baizik eta ikasleak ikasgelan mementu horretan gauzatzen ari diren ariketetan, sekuentzietan, unitate didaktikoetan edota proiektuetan sartu behar direla.

Hala izanik, autore horiek zenbait alternatiba planteatzen dituzte Haur Hezkuntzako 3-6 urte tarteko ikasgeletan IKTak sustatzeko:

- Material didaktiko berriak eta ordenagailu txokoa sortu ikasleentzat *Word* eta *Power Point* bitartez (esaterako jolasak, ipuinak edota fitxak).
- Proiektorearekin taldeko lana bultzatu (adibidez, ariketak guztiak batera gauzatu).
- Soinu grabatzailearen erabilpena sustatu (hala nola, guztiak batera ipuinak grabatuz, ondoren CD batean etxera eramango dituztenak familiekin entzun ditzaten).
- Blogak, egunkari digitalak, kamerak, Internet, tabletak edota arbela digitalak erabili.

Beraz, agerikoa da IKTen integrazioa Haur Hezkuntzan nahitaezkoa izan behar dela. Izan ere, konpetentzia digitalaren eskurapenarekin, ikasleek bizitza errealagatik interesatzen dira eta bizi behar diren gizarteko hiritar aktiboak bihurtzen dira (Zorraquino eta Alejandre, 2009).

1.2 Ikerketan parte hartzen duten hezkuntza metodologiak

1.2.1 Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI)

POI definituz

Autore ezberdinek proiektuetan oinarritutako ikaskuntzaren definizio osatu bat adostu dute:

Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, ikasketa eredu bat da. Ikasketa eredu horretan, ikasleek ikasgelaz haratago doaz eta mundu errealekin lotura dituzten proiektuak planeatu, inplementatu eta ebaluatzen dituzte (Blank, 1997; Dickinson et al., 1998; Harwell, 1997).¹

Hala eta guztiz ere, badaude beste autore batzuk eredu horren definizio zehatzago eta sakonagoa ematen dituztenak:

Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, umeak bizi diren errealitatearen ezagutza lantzeko era bat da. Ikasgelan honelako ikaskuntzarekin lan egiteak, ikasleak entzutea suposatzen du. Era honetan, ikasleei motibatzen eta interesatzen zaizkien gauzak jakingo dira eta bertatik abiatuz, zer ikasi nahi duten erabakiko da (Federación de Enseñanza de CCOO de Andalucía, 2011).

Beraz, bi definizio horiek kontutan hartuz, esan daiteke proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, umeek mundu errealekiko dituzten interesei buruz gehiago jakitea ahalbidetzen dien ikaskuntza prozesua dela; non umeak haien ikaskuntzaren protagonista hutsak diren.

¹: L. Galeana (2006). *Aprendizaje basado en proyectos*. Universidad de Colima, dokumentuan aipatua

POIren ezaugarriak

Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza gero eta esanguratsuagoa egiten hasi da gaur egungo gizartean, batez ere irakasleek estilo, kultura, testuinguru etniko eta abilezia desberdineko ikasle taldeak dituztelako. Ikaskuntza mota hau, ikasle bakoitzaren sendotasunean eraikitzen da, eta umeei haien interesak miazteko aukera dute (Katz & Chard, 1989)².

Euskal Herrian, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza erabiltzen duten eskolen artean, Bilboko Felix Serrano eskola dugu, non Haur Hezkuntza osoan martxan jarri den.

Aurretik azaldutakoaz gain, “proiektuen bidez, era askotariko garapen-gaitasunak azaleratzen dira. Eta gaitasun horiek ez dira kognizioarekin loturikoak soilik, gizarte harremanetakoak, pertsonen arteko elkarreraginekoak, linguistikoak eta mugimenezkoak ere azaleratzen dira” (Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Sailak, 2003:17).

Hortaz, ez da harrizkoa ikasleak proiektuetan oinarritutako metodologia honen bitartez askoz hobeto ikastea eta aritzea klasean. Izan ere, ikasi beharreko kontzeptuak baita gauzatu beharreko jarduerak ere haien mundu errealarekin, hau da, haien testuinguruarekin lotuta daude (Blank & Harwell, 1997).

POIren faseak

Proiektu bat ikasgelan abian jartzeko, irakasleak egin beharreko lehenengo gauza umeen beharrezanetara adi egotea izango da, beraien jardueren edo galderen bitartez zer interesatzen zaien behatuz (Federación de Enseñanza de CCOO de Andalucía, 2011).

Ondoren, irakasleak ikasleen ideia zaparrada egingo du proiekturako aukerak edo ideiak sortzen laguntzeko, eta ideia horietatik ateratzen diren aukerei eta posibilitateei buruz hitz egingo du (Railsback, 2002).

Azkenik, aurreko pausua amaitu ondoren, irakasleak proiektuaren faseak garatzen hasiko da, bere ikasleei horren garapenean laguntzeko.

“Taula 1”ean proiektuetan oinarritutako faseak agertzen dira. Fase horiek ez dira zehatz-mehatz jarraitu behar diren eskema itxi bat. Izan ere, proiektu bakoitza kontutan hartuz lantzen dira; hain zuzen ere, proiektu bakoitzaren ezaugarriak, eragin ditzakeen emozioak edo galderak, eta ekarri ditzakeen ariketak kontutan hartuz (Federación de Enseñanza de CCOO de Andalucía, 2011).

² J. Railsback (2002). *Project-Based Instruction: Creating Excitement for Learning* Portland: Northwest Regional Educational Laboratory, [artikuluari aipatua](#).

Taula 1

Proiektuaren faseak (Estrada, 2007:40)

Fase desberdinak proiektuetan oinarritutako ikaskuntzaren elaborazio erreflexiboarentzat. Irakaskuntza arloa	
Gaien hautaketa	-Justifikazioa: bermatzen dituzten argudioak. -Egokitasuna: pertsonala, soziala eta kurrikularra. -Koherentzia.
Edukiaren hautaketa	-Berrikuste zientifiko eta kulturala. -Irakaskuntzaren hasierako bilbea. -Dossier dokumentala.
Analisi didaktikoa	-Ikasleei buruzko ideien azterketa (dokumentala eta bibliografikoa). -Oinarritzko gaitasun eta edukien arteko konexioak (hasierakoa). -Aurreko ideiak jasotzeko tresna. -Bilbe didaktikoa.
Proposamen didaktikoa	-Ikasteko objektuaren zehaztasuna. - Galderen sarea. - Proiektuaren helburuak. -Behin betiko gaitasunak eta edukiak. -Ariketen eta esperientzien ibilbidea: -Sekuentzia, informazioa (materiala eta irakaslea), taldekatzea eta antolaketa.
Ebaluazioa	-Irizpideak eta txantiloia. -Produkzioen definizioa: lanaren karpeta, erakuspenak eta aurkezpenak.

Iturria: F.J. Estrada (2007). *Trabajo por proyectos en el aula: descripción, investigación y experiencias* liburutik moldatua.

1.2.2 Hezkuntza tradizionala

Gaur egun, hezkuntza sisteman, irakaskuntza metodo desberdinak erabili ohi dira eskoletan. Horietako bat hezkuntza tradizionala da, denbora luzez eskola gehienetan erabili dena eta zehazki, Irlandako eskolan gaur egun abian dagoena.

Cartón eta Ortiz De Barrón ikerlariak zehazten dutenez (2013) “hezkuntza tradizionalak bi oinarri nagusi izan ditu: magistrozentrismoa eta logozentrismoa.”

Magistrozentrismo terminoak irakaslea irakaste-ikaste prozesuaren erdian dagoela esan nahi du. Honetan, irakasleak umeei bereganatu behar dituzten ezagutzak aukeratzen ditu eta haurrek hura imitatu eta obeditu behar dute.

Logozentrismo terminoan aldiz, “helburua irakasgaietan zentratzea da, eta bakoitzaren edukiak diziplina akademikoen arabera antolatuta eta sekuentziazatuta agertzen dira, hezigaiaren garapen psikologikoa kontuan hartu gabe” (Cartón eta Ortiz De Barrón, 2013:10).

Metodologiari dagokionez, irakasleak Acosta Navarro (2005) autoreak esaten duenez, aurretik irakatsitako ezagutzak buruz ikastea eskatzen die ikasleei; baina ezagutza horiek ez daude ikasleen bizipenekin loturik. Horrez gain, enfasi handia ipini ohi da ariketetan baita kontzeptu edo formulen errepikazioan ere. Honelako ariketetan ikasleek ondo lan egin ez badute, ikaskuntzaren errefortzua negatiboa izango da, haren familiei deituz edota zigorrak jarritz.

Ebaluazioari erreparatuz, ordea, lortutako ahozko azterketen (epe laburreko egiaztatzea) edo idatzizko azterketen, etxerako lanen eta ariketen (epe luzeko egiaztatzea) bitartez gauzatzen dela ere azaltzen du Acosta Navarro-k (2005).

Beraz, nahiz eta POI eta hezkuntza tradizionalak printzipio ezberdinak izan, bietatik etekinak atera daitezke. Izan ere, nahiz eta metodologia horiek era desberdinetan lan egin, helburu berdina dute: ikasleek haien heziketa prozesuan curriculumean zehazten diren gaitasun eta kompetentzia guztiak garatzea.

1.3 Kultura artekotasuna eskolan

Gizartean, gero eta kultura desberdineko pertsona gehiago elkarrekin bizi dira. Hori dela eta, kultura artekotasun hori hezkuntza sisteman ere islatzen da. Hala izanik, ikerketaren errealitate bietan kultura aniztasuna nabarmendu daiteke. Irlandaren kasuan, 15 herrialde ezberdinetako ikasleak batera egonik eta Euskal Herriko eskolan 7 herrialdekoak.

Hala ere, batzuetan, kulturen arteko desberdintasunak direla eta, zenbait arazo gertatzen dira. Hortaz, kultura guztien arteko harremanak sendotzeko eta bermatzeko proiektuak behar dira, non guztien arteko errespetua sustatzen den.

Proiektu horiek aurrera eramateko eskola instituziorik interesgarrienetakoa da. Izan ere, giza formakuntzaren oinarria eta gizartearen garapena, transformazioa, askatasuna eta hazkundearen tresna baita (Walsh, 2005).

Beraz, kultura artekotasuna sustatzeko asmoz, zenbait eskoletan, komunitate osoaren partaidetza bilatzen da. Horrela, eskola kultura artekotasunean bizitzeko garrantzi handiko lekutzat hartzen da; batez ere irakasleek eta ikasleek dibertsitatearen baloreak zehazteko eta gauzatzeko lekua izateagatik (Olivencia, 2011).

Horrelako aukerekin, eskolan aritzen diren ikasle eta irakasle guztiek, kultura desberdinen artean errespetua sustatzeaz gain, kultura horien ezaugarri interesgarrienak ikasi ditzakete, eskola inklusibo bat osatuz.

2. Metodologia

Proiektu honen bitartez, Irlandako eta Euskal Herriko kulturak beste herrialdeetara eramatea bilatu nahi da; xedea bi herrialdeen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua aztertzea eta IKTen bitartez horien ezaugarriak ezagutaraztea izanik.

2.1 Helburuak

HO1. Eskola desberdinen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua IKTen bitartez biltzea eta erakustea.

HO2. Ikasle eta irakasleengan IKTen erabilpena eskola bietan sustatzea.

HO3. Klasean egindako gauza guztiak IKTez baliaturik, bi eskolak ikusteko modukoa izango den webgune batean argitaratzea.

HO4. Ikasleek eta irakasleek IKTak bezalako baliabide berriekin ohitura hartzen eta horiek erabiltzen hasten joatea.

HO5. Ikastetxe bakoitzak beste herrialdearen kultura eta ondarea ezagutzea.

HO6. Ikasleek jarduera batzuen bitartez, beste herrialdearen kultura eta ondarea ezagutu duten ala ez ebaluatzea.

2.2 Hipotesiak

H1. IKTen erabilpena ikasgelan zehar ikasleen motibazioa eta interesa pizten du.

H2. IKTen erabilpena ikasgelan zehar ikasleen irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan laguntzen du.

H3. Euskal Herriko eta Irlandako metodologiak eta kulturak, era berean transmititu daitezke beste kultura eta hizkuntza batean.

H4. Bi herrialde desberdineko kulturak ipuinen eta IKT jolasen bitartez barneratu daitezke.

H5. Bideo grabaketan bitartez modu argi eta egoki batean aztertu eta erakutsi daiteke ikasgela baten metodologia.

2.3 Metodoa

2.3.1 Lagina

Ikerketa hau burutzeko Dublineko eta Bilboko bi eskola aztertu dira:

Dublineko Saint Brigid's eskola

Saint Brigid's Eskola Dublineko maila sozioekonomiko altuko auzo batean (Ballsbridge) kokatuta dagoen Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola publikoa da.

Eskola honek ingeleraz ematen ditu bere irakasgai guztiak. Hala ere, Dublinen Irlandera ere hizkuntza ofiziala denez, irlandera ere ematen da, nahiz eta gainontzeko irakasgaietan hori ez erabili.

Saint Brigid's-en, kultura desberdinen ikasleen kopurua oso altua da, hortaz, kultura aniztasuna oso nabarmena da ikasgela bakoitzean, aurren Junior Infants-eko 3. ikasgelan 29 ikasletik, 15 nazionalitate ezberdineko ikasleak izanik. Ikasgelak oso txikiak dira, eta ikasleak lau taldetan sailkatuta daude, talde bakoitza 7-8 ikasleez osatua. Irakaslearen esperientziari dagokionez, lehenengo aldia izan da Junior Infants-eko ikasgela batean.

Eskola honen irakaskuntza prozesua hezkuntza tradizionalan oinarrituta dago. Horrez gain, oso nabarmena da ere erlijioaren garrantzia. Izan ere, eskola publikoa izan arren, ikasleei erlijio katolikoa irakasten zaie (Dublineko Saint Brigid's eskolaren azterketa osoa Eranskina leian ikus daiteke).

Bilboko Felix Serrano Eskola

Bilboko Felix Serrano Eskola Bilbo hiriaren erdian kokatuta dagoen eskola publikoa da, Haur eta Lehen Hezkuntzako ziklo osoak eskaintzen dituena.

Eskola honetan, hezkuntza tradizionala alde batera uzten ari da eta beste erako metodologiak erabiltzen hasi dira, hala nola, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza Haur Hezkuntzan. Ikasturte honetan, proiektuetan oinarritutako ikaskuntzan lan egin duen ikasgela 5 urteko A ikasgela da, 23 ikasleez osaturikoa. Ikasgela nahiko handia eta txukuna da, ikasleek behar dituzten gauza guztiak haien eskura egonda.

Irakasleari dagokionez ordea, 6 urte baino gehiago egon da Haur Hezkuntzan irakasten; beraz, esperientzia nahiko handia dauka adin honetako (0-6) ikasleekin.

Felix Serrano D eredu eskaintzen duen eskola da hau da, euskaraz egiten da dena. Hala ere, Ingelera eta Gaztelania ere irakasten dira, gaztelaniaren irakaskuntza Lehen Hezkuntzan hasiz eta Ingelerako Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik (Bilboko Felix Serrano eskolaren azterketa osoa Eranskina leian ikus daiteke).

Euskal Herria eta Irlandako curriculumen alderaketa

Lan hau bi testuinguru ezberdinetan kokatzean, Euskal Herrian eta Irlandan, beraien curriculumak aztertu dira eta bien arteko ezberdintasunak nabarmendu dira, garatutako proposamen didaktiko biak curriculum horiei egokitzeko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua dagokion errealitateara egoki moldatzeko (Ikus Taula 2).

Taula 2

Euskal Herriko eta Irlandako haur hezkuntza sistemak

Euskal herriko eta Irlandako haur hezkuntza sistemak		
	Euskal Herria	Irlandan
Derrigortasuna	<p>Borondatezko sistema.</p> <p>Ikasleen familiek hautatzen dute haien seme-alabak eskolara bidali nahi dituzten ala ez.</p>	<p>Euskal Herriko Haur Hezkuntza Irlandan, Lehen Hezkuntzako lehenengo kurtsoak dira; beraz, derrigorrezkoa da.</p> <p>Hala ere, badaude Montessori eskolak Haurtzaindegi modukoak direnak, eta horiek borondatezkoak dira. Haurtzaindegi horietan, 0-3 urte tarteko umeak joaten dira.</p>
Zikloen banaketa	<p>Bi ziklotan dago banatuta:</p> <ol style="list-style-type: none"> <u>Lehenengo zikloa:</u> 0 urtetik 3 urteetaraino. <u>Bigarren zikloa:</u> 3 urtetik 6 urteetaraino. 	<p>Haur Hezkuntza 0-6 urte bitartean gauzatzen da.</p> <p>Ikasleak hiru talde desberdinetan sailkatzen dira beraien adina kontutan hartuz:</p> <ol style="list-style-type: none"> <u>1. Babies:</u> Jaiotzen direnetik 18 hilabetera arte. <u>2. Toddlers:</u> 12 hilabetetik 3 urtera arte. <u>3. Young children:</u> bi urte eta erdi dutenetik 6 urtera arte (NNCA, 2009). <p>Hala ere, “Young children” taldearen baitan, 4 urteko umeak eskoletan hasten dira “Junior Infants” bezala. Izan ere, Irlandan, adin horretako umeak Lehen Hezkuntzako ikasleztat hartzen dira.</p>
Eremuak	<p>Bi eremu daude:</p> <ol style="list-style-type: none"> Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua. Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua. <p>(Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Saila, 2016)</p>	<p>Hiru eremu daude:</p> <ol style="list-style-type: none"> Umeak eta haien bizitza Haur Hezkuntzan. Umeen konexioak besteekin. Umeek nola ikasten duten eta nola garatzen diren (NNCA, 2009).
Xedea	<p>Dimentsio guztietan laguntzea haurraren garapena, familiekin eta ingurunearekin lankidetzat estuan jardunda.</p> <p>Irakatsi eta ikasteko prozesuak lantzeko, ezinbesteko dira erantzukidetasuna, lankidetzat eta elkarren onarpena (Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Saila, 2016).</p>	<p>Ikasleek erronka moduko eta gustuko duten ikaskuntza mota bat garatzeko aukera ematea, baita konfiantzazko ikaslea eta ikasle konpetente bezala hazteko posibilitatea ere (NNCA, 2009).</p>

Konpetentziak / Printzipioak	<p>Sistema honetan 5 konpetentzia desberdin garatu behar dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia. 2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia. 3. Elkarbizitzarako konpetentzia. 4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia. 5. Izaten ikasteko konpetentzia. (Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Saila, 2016) 	<p>Sistema honetan 12 printzipio desberdintzen dira, aurretik aipaturiko hiru eremutan banatuta daudenak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. <u>Umeak eta haien bizitza Hau Hezkuntzan:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Umearen paregabetasuna. • Berdintasuna eta dibertsitatea. • Umeak hiritarrak bezala. 2. <u>Umeen konexioak besteekin:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Erlazioak. • Gurasoak, familia eta komunitatea. • Helduaren rola. 3. <u>Umeek nola ikasten duten eta nola garatzen diren:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Ikaskuntza eta garapen holistikoa. • Ikaskuntza aktiboa. • Jolasarekin eta gauza praktikoekin erlazonaturiko esperientziak. • Garrantzitsuak eta esanguratsuak diren esperientziak. • Komunikazioa eta hizkuntza. • Ikasteko ingurugiroa (NNCA, 2009).
---	---	--

Horretaz gain, metodologia bien ezaugarriak testuinguru bietan ezagutzera eman nahi izan dira. Hori dela eta, eskola bateko metodologia hartu eta bere kultura-ondarea eduki bezala hartzen duen proiektua diseinatu eta garatu da. Ondoren, proiektua beste eskolan martxan jarri da.

Horrela bada, Irlandan, Dublineko Saint Brigid's eskolako 4-5 urteko gelan, Euskal Herriko kultura eta ondarea erakutsi da POI metodologia barne hartzen zuen proiektu baten bitartez. Proiektua Euskal Herriko pertsonaia ezagunenetan oinarritzen da (Mari, Olentzero eta Argitxo), ipuinak eta jolasak barne hartzen ditu eta ebaluatzeko jarduera eskatzen da.

Euskal Herrian, ordea, Bilboko Felix Serrano Eskolako 5 urteko gela aztertu, eta Irlandako kultura eta ondarea erakutsi da metodologia tradizionala barne hartzen zuen proiektu baten bitartez; Leprechaun, Saint Patrick eta Hirusta bezalako irudiak erabili dira ere.

Horiek ezagutzera emateko, ipuinak eta horietan oinarritutako jolasak ere gauzatu dira ikasleen artean. Amaitzeko, Dublinen bezala, ikasitakoaren irudi bat eskatu zaie ikasleei.

Bi eskolen hezkuntza sistemak eta kultura desberdinen ezaugarriak aztertuta eta proiektuak diseinatu eta garatuta, <http://www.guztiakbatera.blogspot.com> webgunea sortu da. Web-an eskola bien arteko alderaketa eta klasean egindako guztia erakusten da.

Proiektu hau aurrera eramateko hurrengo pausuak jarraitu dira:

- a) Proiektuaren helburuak, metodologia eta ebaluazio irizpideak egokitu.
- b) <http://www.guztiakbatera.blogspot.com> webgunea sortu.
- c) Dublineko eta Bilboko eskolen datu bilketa.
- d) Eskola bakoitzaren metodologiaren argazkiak eta grabaketa kamera digitalaren bitartez.
- e) Eskola bakoitzean esku hartzeak gauzatu eta bideoen eta argazkien bitartez prozesua batu.
- f) Bideoekin eta argazkiekin batutako guztia editatu eta webgunean argitaratu.
- g) Bi eskoletan esku hartzea gauzatu eta dena grabatu ondoren, irakasleei galdetegiak egin proiektua, proiektuaren jarduerak eta webgunea zer iruditu zaizkien jakiteko.
- h) Prozesu osoaren ondorioak atera.
- i) Webgunean prozesu guztia islatu, guztien eskura egon dezan.

2.3.2 Tresnak

Grabaketak

Grabaketak Monica Garcia Gil-en (Gil, 2011) lanean proposaturiko metodoan oinarrituta daude.

Hala eta guztiz ere, grabatu diren bideoak Haur Hezkuntzako ikasgeletan izan direnez, zenbait mementuetan, grabatzaileak ez ditu Gil-ek (Gil, 2011) bere lanean azaltzen dituen puntu guztiak kontutan hartu. Izan ere, Haur Hezkuntzako errealitate horretan, gauzak aldatu edo inprobisatu behar dira umeen jarrera edota jokaera dela eta.

Hortaz, Haur Hezkuntzako gela batean oinarrituta, Gil-ek (Gil, 2011) proposatzen dituen guztietatik, puntu batzuk aukeratu dira. Puntu horiek guztiak grabaketak gauzatzeko bete behar diren hiru faseetan zehar daude sailkatuta, hurrengo “Taula 3”an ikus daitezkeenak:

Taula 3

Grabaketaren faseak (Gil, 2011)

Preprodukzioa

Bideoak grabatu baino lehen plan on bat edukitzea komeni da, horrela arrakasta lortzea errazagoa izango da. Horretarako, zenbait aspektu kontutan eduki behar dira, hala nola, grabatuko diren pertsonen eta kameraren artean arazoak egon daitezkeela edota kameraren presentziak pertsonen jarrera aldatu dezakeela. Behin horiek aintzat hartuta, hurrengo pausuak jarraitzen dira grabaketekin hasi baino lehen:

- Ikerketa bibliografiko eta dokumentala.
- Ikertu nahi diren pertsonaien eta lekuen azterketa egin eta interakzioa eduki beraiekin.
- Bideo elaborazioaren gidoia edo plana prestatu.

Produkzioa	<p>Grabaketa egiterakoan, kontutan eduki behar da jasotako materialak datu guztiak sailkatu, ikertu eta ahalbidetu behar dituela. Horrez gain, partaideak, lekuak eta jarduerak grabatzerakoan, kontutan hartu behar da ere ikerketaren gakoa eta gai nagusia zein den.</p> <p>Partaideen adina 4-5 urtekoa denez, askotan bideo bat baino gehiago egin beharko dira, beraz, grabatzaileak memoria txartela eta bateria beti prest eduki behar izango ditu.</p>
Postprodukzioa	<p>Azkeneko fase honetan materialaren analisia gauzatzen da. Grabatzaileak datu guztiak kontu handiz birpasatuko ditu eta ondoren, islatu nahi duenaren laburpen bat egingo du bideo editorearen bitartez. Era honetan, prozesu guztia azkeneko bideo bakar batean agertuko da.</p> <p>Fase honetan jarraitu beharreko pausuak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jasotako materialaren aukeraketa eta sailkapena. • Informazioaren analisia. • Azkeneko emaitza bezala editatuko den bideoaren aurretiko gidioia prestatu eta jarraitu. • Bideo horren musikalizazioa eta kopiak.

Grabaketak bi fin ezberdin lortzeko erabili dira.

Lehenengoz, bi eskolen Haur Hezkuntzako 4-5 urteko gela lan egiteko era/sistema bildu da bideo grabaketak eginez. *Dublineko eskolaren kasuan*, hurrengo datuak bildu dira:

- Grabatzeko denbora: 3 aste erabili dira grabaketak egiteko. Grabaketak iraupen gutxikoak dira (2-3 minutu), baina irakasgai bakoitzetik 10 minutu erabili dira horiek modu egokian gauzatzeko.
- Zenbat egun: 4 aste horietan zehar, egunero grabatu egin da, beraz 20 egun erabili dira grabaketa guztiak gauzatzeko.
- Zer jaso den: 50 grabaketa desberdinak jaso dira 20 egun horietan zehar. Grabaketa horien bitartez, Irlandako Junior Infants-eko ikasgela batean erabiltzen den metodologia jaso da, ikasleek egindako fitxetatik, liburuetatik eta jardueretatik jaso dena. Grabaketetatik, momentu deigarrienak erakusten zituzten eszenak hartuz, bideo bakarra sortu da eskolaren metodologia islatuz, webgunearen “Saint Brigid’s eskola” atalean argitaratuta dagoena.
- Zein ondorio atera diren: eskola honek erabiltzen duen metodologia (hezkuntza tradizionala) aldatzea ondo legoke; izan ere, ikasle askok ez dute oraindik zenbait abilezia garaturik eta gauza berriak irakasten saiatzen dira, nahiz eta aurreko kontzeptuak eta trebetasunak barneratuta ez eduki.

Bilboko eskolaren kasuan, aldiz, datu hauek jaso dira:

- Grabatzeko denbora: kasu honetan ere 3 aste erabili dira grabaketak gauzatzeko. Halaber, grabatzaileak ez ditu egunero grabaketak egin. Astero birritan grabatu da eta grabaketa gehienek 4-5 minutuko iraupena dute.
- Grabatzeko momentuak: grabaketak ikasgela barruan egin dira, hain zuzen ere, ikasleak lantzen ari ziren proiektuaren atalak gauzatzen zuten momentuetan.
- Zenbat egun: hiru aste horietatik, 11 egun erabili dira grabaketak egiteko.
- Zer jaso den: 22 grabaketa gauzatu dira 11 egun horietan zehar. Grabaketa horiek proiektuetan oinarritutako irakaskuntza jasotzeko egin dira, hain zuzen ere, “Txoriak” proiektua. 22 grabaketa horietatik momentu esanguratsuenak hartu dira bideo bakarra osatuz eta webguneko “Felix Serrano eskola” atalean argitaratuz. Era honetan, eskola horren Haur Hezkuntzako metodologia erakusten da.
- Zein ondorio atera diren: hezkuntza mota honen bitartez, umeen interesak kontutan hartzen dira eta motibatuta lan egiten dute. Metodologia ikasleengan oinarrituta dago eta abilezia guztiak garatuta ez dituzten ikasleak edota hezkuntza bereziko ikasleak daudenean, behar duten beste laguntza ematen zaie, bai ikaskideena baita irakaslearena ere (hezkuntza premia bereziak duten ikasleek irakasle espezializatua izan ohi dute).

Grabaketak, bigarrenez, haurren proiektuak erakusteko ere erabili dira. Horregatik, haurrekin proiektuaren jolasak gauzatzen ziren bitartean, grabaketak egin dira, ondoren webgunera igo direnak bideo editatuen bitartez, denen eskura egon daitezzen.

Grabazio bakoitza iraupen gutxikoa da, ikasleak IKTekin nola moldatzen diren erakusten duena; esaterako, arbela digitalaren arkatza erabiliz, edota arratoia erabiliz. Horrez gain, jolasak istorioetan oinarrituta daudenez, ikasleak IKTak erabiltzera ohitzen diren bitartean, istorioan zehar adi egon diren eta dena ulertu den ala ez frogatu da emandako erantzunekin.

Webgunean argitaratu diren metodologiei eta proiektuei buruzko bideo guztiak, ingelerara itzuli dira, Irlandako pertsonentzat ere eskuragarri egon daitezzen. Horrez gain, bideo bakoitzaren transkripzioak ere egin dira, *Dropbox* baliabidearen bidez webgunetik deskargatu daitezkeenak klik eginda.

IKT erramintak (hardware eta softwareak)

Ikerketa lana aurrera eramateko erabili diren erramintak honako hauek izan dira:

- *Power Point*: erraminta hau proiektu bakoitzaren jolasak sortzeko erabili da bereziki. Programa honek eskaintzen dituen akzio botoien bitartez, hiperbinkuluz osaturiko aurkezpenak egin dira jolasetarako, Internetetik harturiko argazkiak erabiliz.
- *Glogster*: erraminta hau webgunean bi eskolen informazioa era argian, ulergarrian eta bisualean azalarazteko erabili da.
- *Slideboom*: erraminta hau webgunean proiektuetan erabilitako ipuinak eta jolasak argitaratzeko erabili da; baita Bilboko Felix Serrano Eskolan egindako “Txoriak” proiektuaren dossierra erakusteko ere.
- *Arbela digitala*: arbela digitala Dublineko eskolan egindako proiektuaren jolasak eta ipuinak gauzatzeko erabili den erraminta da. *Proiektorearen* bitartez, *ordenagailuan* agertzen diren irudiak arbelean azalarazten dira, eta ikasleei zuzenean jolasteko aukera ematen die *arkatz digitala* erabiliz.
- *Cyberlink Power Director 13*: ikerketa lan osoan zehar egindako grabazioak editatzeko aukera eman duen bideo editorea izan da. Honi esker, webgunean argitaratu diren eskolei eta proiektuei buruzko bideo guztiak gauzatu dira, baita “Hirusta berdeak” ipuinaren ahots berria txertatu da ere.
- *Youtube*: baliabide honek eskaintzen dituen bideak erabili dira Euskadiko eta Irlandako zertzeladak erakusteko eta “hirusta berdeak” bezalako ipuina hartzeko.
- *Ordenagailua*: ikerketa lanean zehar erabili den tresnarik garrantzitsuena izan da, non bideo guztiak editatu diren eta jolasak zein ipuinak sortu diren. Gainera, Bilboko eskolan hura erabili da proiektua gauzatzeko (proiektorearekin izandako arazoengatik).
- *Argazki eta bideo kamerak*: grabazioak eta argazkiak eskoletatik jaso eta bertan gauzatu dena erakusteko aukera eman dute.

Ipuinak

Bi proiektuetan erabilitako ipuinak Euskal Herriko Argitxo, Olentzero eta Mari pertsonaien eta Irlandako Leprechaun, Hirusta eta Saint Patrick bezalako pertsonaia esanguratsuen inguruan murgilduta daude, herrialde horien kulturaren eta ondarearen zertzeladak erakutsi nahian.

Alde batetik, proiektuak ipuinetan zentratua egoteak erabateko abantailak ekartzen dizkie umeei; izan ere, ipuinek, umeen bizitza aberasten dute, umeen plano psikologiko eta emozional berean kokatzen baitira. Are gehiago, istorioan zehar atera diren gatazken ebazpenen adibideak eskaintzen dituzte. Horrenbestez, Haur Hezkuntzan ipuinak erabiltzea dimentsio berriak eskaintzen dizkiete umeei, beraien kabuz ezingo lituzketenak lortu (Tejada, 2009).

Blog-a

Ikerketa lan honen informazio guztia webgune batean argitaratu da, “Blogger” izeneko plataforma erabiliz. Webgunea www.guztiakbatera.blogspot.com orrialdean dago erakusgarri. Blog honen helburua bi eskoletan egindako grabaketak denen eskura egotea eta proiektuak (haien emaitzekin) argitaratzea izan da. Hortaz, informazio osoa ingeleraz eta euskaraz azaltzen da.

Blogaren egiturari dagokionez, blogaren edukia antolatzeke 8 orrialde desberdinu daitezke;

- *Sarrera*; orrialde honetan, webgunea bisitatzen duten pertsona guztiei ongi etorria ematen zaie, webgunean erakutsiko dena laburki azalduz.
- “*Irlanda*” eta “*Euskal Herria*”; bi orrialde hauetan, lana aurrera eraman den herrialdeen aurkezpen laburra egiten da. Horrela, bisitariak lanaren testuinguruan kokatzeko aukera handiagoa dauka.
 “*Saint Brigid’s Eskola*” eta “*Felix Serrano Eskola*”; beste bi orrialde hauetan, eskola bakoitzaren informazioa azaltzen da euskaraz eta ingeleraz argitaraturiko *Glogster* batzuekin. Horrez gain, eskola bakoitzaren metodologiak ere aurkezten dira bi bideoen bitartez, haien transkripzioa deskargatzeko aukera izanik. Amaitzeko, Felix Serrano eskolaren kasuan, “Txoriak” proiektuaren dosierra ere agertzen da *Slideboom* batean.
- “*Dublineko proiektua*” eta “*Bilboko proiektua*”; webguneko orrialde hauetan, eskola bakoitzean gauzatu diren proiektuen ipuinak eta jolasak agertzen dira *Youtube* edota *Slideboom* baliabideak erabiliz. Horrez gain, eskola bakoitzean jolasak nola gauzatu diren erakusteko, bi bideo argitaratu dira, transkripzioak deskargatzeko aukera ere dituztenak.
- *Emaitzak*; azkeneko orrialde honetan, bi eskoletan egindako jolasen eta ipuinen behaketetatik eta ikasleen irudietatik jasotako emaitzak erakusten dira. Horrekin batera, ikasleek egindako irudiak erakusten dituen bi *Slideboom*-ak ere badaude.

Galdetegiak:

Bi herrialdeetan proiektuak gauzatu ostean, irakasle bakoitzari ikerketa lan osoari buruzko galdetegi bat bidali zaio email baten bitartez, *Google Forms* aplikazioarekin sortu dena. Galdetegiaren helburua ikerketaren helburu eta hipotesi batzuk betetzen diren egiaztatzea izan da. Konkretuki, H1, H2 eta H5 hipotesiak, eta HO2, HO4, HO5 eta HO6 helburuak ebaluatu dira.

- Dublineko irakaslearen galdetegia: (Ikus 2. Eranskina).
- Bilboko irakaslearen galdetegia: (Ikus 2. Eranskina).

2.3.3 Dublineko Saint Brigid's eskolako proiektuaHelburuak:

- IKTen erabilpena ikasgelan zehar sustatzea.
- Euskal Herriko kultura eta ondarea Argitxo, Olentzero eta Mari bezalako pertsonaien bitartez barneratzea.
- Proiektuan zehar atera diren hiru pertsonaiak beraien istorioarekin erlazionatzeko abilitatea izatea.
- Beste herrialde eta kulturen arteko errespetua sustatzea.

Edukiak:

- Argitxo, Mari eta Olentzero.
- IKTak.
- Euskal Herria eta Euskara.
- Errespetua.

Metodologia:

Dublineko Saint Brigid's Eskolan, 6 egun erabili dira proiektua gauzatzeko; egun bakoitzeko ipuin edo jolas bat gauzatuz.

Eskola honetan hiru hilabete egonda eta kontutan izanda apirilean praktiketako beste irakasle berri bat etorriko zela, *martxoa* aukeratu da proiektua gauzatzeko hilabete aproposena bezala.

Otsailean, ikasleen interesak, lan egiteko era eta eskolako funtzionamendua ikertu dira, eta martxoan poliki-poliki proiektua gauzatuz joan da.

Proiektua gauzatzeko erabili den aldia “*ipuinak kontatzeko ordua*” izan da. Horrela, 13:00etatik 13:30etaraino ikasleek duten mementua hartu da ipuinak kontatzeko. Proiektuaren barne dauden ipuin eta jolas guztiak une berean gauzatu dira ere; azkeneko jarduera izan ezik, “*jolas orduan*” egin dena, eskolan egun berezia ospatu zelako.

Proiektuaren jarduera bakoitza gauzatzeko, *30 minutu* erabili dira, eta ikasle *guztiek* batera (29) parte hartu dute, batzuk andereñoaren inguruan *korro* handi bat eginez eta beste batzuk haien *eserlekuetatik* (Blogean eta 3. Eranskinean ikusgai).

- Euskal Herriko pertsonaien ipuinak: (Blogean eta 5. Eranskinean ikusgai).
- Ipuinetan oinarritutako jolasak: (Blogean eta 6. Eranskinean ikusgai).
- Ikasleek egindako irudiak: (Blogean eta 9. Eranskinean ikusgai).

Ebaluazioa:

Ebaluazio irizpideak:

- *IKTen erabilpena ikasgelan zehar sustatzea.*
 - Ea IKTak ondo maneiatzeko abilitatea duen.
 - Ea IKTak era egokian erabiltzen dituen.
- *Euskal Herriko kultura eta ondarea Argitxo, Olentzero eta Mari bezalako pertsonaien bitartez barneratzea.*
 - Ea ipuinetan eta jolasetan agertzen diren Euskal Herriko elementuak barneratu dituen.
 - Ea Euskal Herriko kultura eta ondarearekin erlazionaturiko elementuak identifikatzen dituen.
- *Proiektuan zehar atera diren hiru pertsonaiak beraien istorioarekin erlazionatzeko abilitatea izatea.*
 - Ea Mari, Argitxo eta Olentzero identifikatzen dituen.
 - Ea Mariren itxura edota bere istorioan/jolasean zehar agertzen diren elementuak Marirekin erlazionatzen dituen.
 - Ea Argitxoren itxura edota bere istorioan/jolasean zehar agertzen diren elementuak Argitxorekin erlazionatzen dituen.
- *Beste herrialde eta kulturen arteko errespetua sustatzea.*
 - Ea proiektu osoan zehar beste herrialdearekiko errespetua erakutsi duen.

2.3.4 Bilboko Felix Serrano eskolako proiektua

Helburuak:

- IKTen erabilpena ikasgelan zehar sustatzea.
- Irlandako kultura eta ondarea Leprechaun, Saint Patrick eta Hirusta bezalako pertsonaien eta elementuen bitartez barneratzea.
- Hiru istorioak bere pertsonaia edo elementu bakoitzarekin erlazionatzeko abilitatea izatea.

- Beste herrialde eta kulturen arteko errespetua sustatzea.

Edukiak:

- Leprechaun, Saint Patrick eta Hirusta.
- IKTak.
- Irlanda.
- Errespetua.

Metodologia:

Felix Serrano Eskolan proiektua *maiatzaren lehenengo astean* eraman da aurrera, egun bakoitzeko ipuina eta horretan oinarritutako jolasak gauzatuz. Hortaz, 4 egun erabili dira, lehenengo hirurak ipuinak eta jolasak gauzatzeko, eta azkenengoa ikasleen ebaluazioa gauzatzeko eskatu zaien irudiak egiteko.

Proiektua gauzatzeko erabili den aldia patio osteko ordua izan da, 11:30etatik 12:30etaraino irauten duena. Ordu horretan, aurretik azaldu den bezala, proiektuaren barne dauden ipuin eta jolas guztiak gauzatu dira, egunero ipuin bat eta horretan oinarritutako jolasa eginez. Ipuin eta jolas bakoitzarentzat 30 minutu erabili dira eta *ikasle guztiek batera* (23) parte hartu egin dute andereñoaren inguruan *korro* handi bat eginez (Blogean eta 4. Eranskinean ikusgai).

- Irlandako pertsonaien ipuinak: (Blogean eta 7. Eranskinean ikusgai).
- Ipuinetan oinarritutako jolasak: (Blogean eta 8. Eranskinean ikusgai)
- Ikasleek eginiko irudiak: (Blogean eta 10. Eranskinean ikusgai)

Ebaluazioa:

Ebaluazio irizpideak:

- *IKTen erabilpena ikasgelan zehar sustatzea.*
 - Ea IKTak ondo maneiatzeko abilitatea duen.
 - Ea IKTak era egokian erabiltzen dituen.
- *Irlandako kultura eta ondarea Leprechaun, Patrizio Santua (Saint Patrick) eta Hirusta bezalako pertsonaien eta elementuen bitartez barneratzea.*
 - Ea ipuinetan eta jolasetan agertzen diren Irlandako elementuak barneratu dituen.
 - Ea Irlandako kultura eta ondarearekin erlazionaturiko elementuak identifikatzen dituen.
- *Hiru istorioak bere pertsonaia edo elementu bakoitzarekin erlazionatzeko abilitatea izatea.*
 - Ea Hirusta, Leprechaunak eta Saint Patrick identifikatzen dituen.


- Ea Hirustaren itxura edota bere istorioan/jolasean zehar agertzen diren elementuak Hirustarekin erlazionatzen dituen.
 - Ea Leprechaunaren itxura edota bere istorioan/jolasean zehar agertzen diren elementuak Leprechaunarekin erlazionatzen dituen.
 - Ea Saint Patrickren itxura edota bere istorioan/jolasean zehar agertzen diren elementuak Saint Patrickekin erlazionatzen dituen.
- *Beste herrialde eta kulturen arteko errespetua sustatzea.*
- Ea proiektu osoan zehar beste herrialdearekiko errespetua erakutsi duen.

3. Ikerketaren emaitzak

Atal honetan ikerketaren helburuak lortu direla ebaluatzeko eta hipotesiak egiaztatzeko burutu diren ekintzen emaitzak laburbiltzen dira. Horrela bada, alde batetik, irakasleei galdetegi bat pasatu zaie eta horretan H1, H2 eta H5 hipotesiei, eta HO2, HO4, HO5 eta HO6 helburuei buruz galdetu zaie. Horien emaitzak ondorengoak dira:

Bilboko irakaslea:


Bilboko irakasleak gehienezko puntuazioarekin ebaluatu ditu galdetegiko dimentsio guztiak; proiektuaren diseinu pedagogikoa, proiektuaren garapena, burututako jarduerak, ikerketaren helburuak eta diseinua eta bloga. Horrela, 30 itemak 5 puntuazioarekin ebaluatu dira. Aipatzekoa da irakaslearen ohar batzuk: *Umeei asko gustatu zitzaien Ane-k ekarritako ipuinak. Erraz lortu zuen haien aditasuna sustatzea edota oso interesatuta agertu ziren Irlandako ohiturei buruz galdera nahikotxo eginez.*



Grafiko 1: Bilboko irakaslearen galdetegitik lortutako emaitzak

Dublineko irakaslea:

Dublineko irakasleak ere gehienezko puntuazioarekin ebaluatu ditu galdetegiko dimentsio guztiak, galdetegiaren item bat izan ezik. Galdera hori, webgunean zehar islatzen den eskolen arteko alderaketari dagokio, 4 batekin ebaluatu duena. Hala ere, orokorrean, proiektuaren diseinu pedagogikoa, proiektuaren garapena, burututako jarduerak, ikerketaren helburuak eta diseinua, eta bloga oso egokiak direla esan daiteke.



Grafiko 2: Dublineko irakaslearen galdetegitik lortutako emaitzak

Dublineko irakaslearen oharrak azpimarratzen dira, non *proiektuan zehar egindako ariketetan erabilitako baliabideak bikainak* zirela adierazten duen, eta *umeak edukiarekin oso animatuta* zeudela aipatzen duen.

Hortaz, irakasleen galdetegitik jasotako emaitzak behin aztertuta, H1, H2 eta H5 hipotesiak betetzen direla egiaztatzen da. Hau da, IKTen erabilpena ikasleen motibazioa eta interesa pizteko eraginkorra dela eta ikasleen irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan laguntzen duela frogatzen du. Bestaldetik, bideo grabaketak egokiak direla ikasgela baten metodologia aztertu eta erakusteko egiaztatzen da.

Bestalde, H3 eta H4 bete diren ala ez egiaztatzeko, martxan jarritako proposamen didaktikoetan planteatutako helburuak bete diren ala ez ebaluatu da, horretarako ikasleen irudiak eta behaketak erabiliz. Ondorengo datuak jaso dira:

Taula 4

Proiektuetatik lortutako emaitzak

Irudien ebaluazioa	Dublinen		Bilbon	
	Bai	Ez	Bai	Ez
Ipuinetako pertsonaiaren bat erakutsi du.	15	4	18	2
Ipuinetako pertsonaiaren bat bere jolasa/istorioaren elementuekin erlazionatu ditu.	6	13	14	6
Ipuinetako/jolasetako pertsonaiaren koloreak (gutxienez bat) errespetatu ditu.	7	12	16	4
Ipuinetako/jolasetako elementuen koloreak (gutxienez bat) errespetatu ditu.	3	16	17	3
Irudia entregatu nahi izan du.	19	2	20	1
Egun horretan klasera etorri da.	21	8	21	2
Behaketak	Dublinen		Bilbon	
	Bai	Ez	Bai	Ez
IKTak ondo maneiatzen ditu.	21	0	21	0
Zailtasunak ditu IKTetan oinarritutako jolasekin lan egiteko.	18	3	1	20
Interesatuta dago ipuinetan eta jolasetan.	15	6	21	0
Arreta jartzen du irakasleak ipuinak kontatzen dituenean.	15	6	21	0
Gainontzeko kulturekin erlazionaturiko ipuinak eta jolasak errespetatzen ditu.	21	0	21	0
Portaera ona izan du.	16	5	21	0
Interesa erakutsi du jardueretan IKTei esker (elementu bisualak, ariketa dinamikoak).	18	3	21	0
Orokorrean gogotsu parte hartu du esku hartze guztietan.	18	3	21	0

Hortaz, proposamen didaktikoei dagokionez, Euskal Herriko eskolako proiektuan planteatutako helburuak lortu direla esan daiteke, ikasle talde erdiak baino gehiagok atal guztiak gainditu dituztelako.

Halaber, Irlandako eskolatik jasotako emaitzetan, irudien ebaluazioan hiru atal gainditu barik daudela ikus daiteke, ikasle hauen zailtasunak erlazioak burutzeko alorrean daudela erakutsiz:

Taula 5

Irlandako ikasleek gainditu ez dituzten atalak

Ipuinetako pertsonaiaren bat bere jolasa/istorioaren elementuekin erlazionatu ditu.	6
Ipuinetako/jolasetako pertsonaiaren koloreak (gutxienez bat) errespetatu ditu.	7
Ipuinetako/jolasetako elementuen koloreak (gutxienez bat) errespetatu ditu.	3

Taulan ikusten den moduan, ikasle hauek zailtasunak dituzte jolasen eta ipuinen pertsonaien elementuak erlazionatzeko, edota kolore deigarrienak erakusteko/errespetatzeko.

Dena den, nahiz eta Dublineko proiektuan adostu diren helburuetatik “proiektuan zehar atera diren hiru pertsonaiak beraien istorioarekin erlazionatzeko abilitatea izatea” ez lortu, ikerketa hasi aurretik adostu diren gainontzeko helburu guztiak lortu direla esan daiteke. Izan ere, ikasle erdiak baino gehiagok ipuinen eta jolasen pertsonaiak identifikatu dituzte, atzerriko kulturari buruzko gauza berriak barneratu dituzte, kultura desberdinak errespetatzen ikasi dute eta IKTak era egokian maneiatu dituzte.

Beraz, H3 eta H4 egiaztatu egiten direla esan daiteke. Hots, IKTetaz baliatuz posible dela Euskal Herriko metodologia eta kultura eta berean transmitzea beste kultura eta hizkuntza batean. Eta modu berdinean posible dela Irlandako metodologia eta kultura IKTetako proiektu berean erakustea.

3. Ondorioak

Aurretik aztertutako emaitzen ostean, ikerketa lan osoaren helburuak bete direla esan daiteke. Irakasleei egindako galdeketetatik, ikasleen irudietatik eta ikerlari honek eginiko behaketetatik ondoriozta daiteke ikasle eta irakasleengan IKTen erabilpena eskola bietan sustatu dela (HO2), ikasleek eta irakasleek IKTak bezalako baliabideak egunerokotasunean erabiltzeko apostua egin dutea (HO4) eta, ikastetxe bakoitzak beste herrialdearen kultura eta ondarea barneratu dutela (HO6).

Horrek, era berean eramaten du positiboki ebaluatzera bloga eta ezinbesteko baliabidetzat hartzera. Izan ere, bloga eta erabilitako IKT baliabiderik gabe ezin izango

zen ikerketa honetan planteatzen den berrikuntza aurrera eraman. Beraz, HO1 eta HO1 helburuak lortu direla azpimarra daiteke.

Hala ere, bi gauza aipatu behar dira: (1) Alde batetik, ikasleek jasotzen dituzten metodologiek izugarriko garrantzia dutela haien ikaskuntza prozesuan. Izan ere, Irlandako kasuan esaterako, hezkuntza tradizionalan oinarritutako metodologiarekin lan egiten dutenez, ikasle askok ez dute hainbeste arretarik jartzen ipuinak eta jolasak egiterakoan. Horregatik, irudiak gauzatu ostean, askok nahi dutena marrazten dute. (2) Aitzitik, Euskal Herriko eskolan, denak esertzen dira korroan irrikaz eta arreta handia ipiniz ipuinak eta jolasak gauzatzeko. Hori dela eta, haien emaitzak irudiak gauzatzekoan hobeagoak dira.

Horretaz gain, irakaslearen rola ere kontutan hartu behar da. Irlandako kasuan, irakasleak ikasgela osoa kontrolatzen du, magistrozentrismoan oinarrituta baitago; eta gainera, bere autoritatea oso nabarmena da. Euskal Herriko eskolan, aldiz, irakasleak ikasgela gidatzen du, baina benetako protagonistak umeak dira; eta azken emaitzetan hori asko nabarmentzen da, Irlandako proiektuan hiru atal gainditu barik egonda.

Bukatzeko, errealitate horren ezberdina duten eskola biko metodologiak aztertzean, agerikoa da kontraste handiak aurkituko direla haien artean. Hala ere, ezberdinak izateak ez du esan nahi ikasleen heziketa prozesua ez dela era egokian gauzatzen ari; baizik eta irakasteko metodo asko daudela. Beraz, horiek ikasleentzako heziketa esanguratsua bermatuko dutela egiaztatzea behar da martxan jarri aurretik.

4. Bibliografia

- 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, *Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa* (EHAA, 2016-01-15). Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Saila. Haur Hezkuntzako Curriculum Dekretua. Euskal Herriko agintaritzaren aldizkaria. 9.zenbakia. 2016-03-10ean hemendik hartua: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/bigarren_egitasmoa.html
- Acosta Navarro, M. E. (2005). Tendencias pedagógicas contemporáneas: La pedagogía tradicional y el enfoque histórico-cultural. Análisis comparativo. *Revista Cubana de Estomatología*, 42(1). 2016-03-11an hemendik hartua: http://www.bvs.sld.cu/revistas/est/vol42_1_05/est09105.pdf
- Blank, W. E., & Harwell, S. (1997). *Promising Practices for Connecting High School to the Real World*. Tampa, Florida: University of South Florida. 2015-11-18 hemendik hartua: http://www.ibrarian.net/navon/paper/Promising_Practices_for_Connecting_High_School_to.pdf?paperid=1885867
- Cabero, J. (1998) Impacto de las nuevas tecnologías de la información y la comunicación en las organizaciones educativas. Lorenzo, M. eta besteak (koord): *Enfoques en la organización y dirección de instituciones educativas formales y no formales* 197-206. Granada: Grupo Editorial Universitario. 2016-03-12an hemendik hartua: <http://tecnologiaedu.us.es/cuestionario/bibliovir/75.pdf>
- Cartón, H. eta Ortiz De Barrón, I. (2013) *Mugimendu pedagogikoak eta Hezkuntza Sistema*.

- Euskara eta eleaniztasuneko errektoreordetzaren sare argitalpena. Euskal Herriko Unibertsitatea. 2016-03-14an hemendik hartua: <http://testubiltegia.ehu.es/Mugimendu-pedagogikoak/mugimendu-pedagogikoak.pdf>
- Cobo Román, J.C. (2009). Informazio teknologikoen kontzeptua. IKT definizioen gaineko benchmarking ezagutzaren gizaratean, *Zer aldizkaria* Vol. 14 – Núm. 27. ISSN: 1137-1102 295-318. 2016-03-10ean hemendik hartua: <http://www.ehu.es/zer/hemeroteca/pdfs/zer27-14-cobo.pdf>
- Estrada, F. J. (2007). *Trabajo por proyectos en el aula: descripción, investigación y experiencias*. Morón de la Frontera, Sevilla: Cooperación Educativa.
- Federación de Enseñanza de CCOO de Andalucía. (2011). Trabajar por proyectos en educación infantil. *Temas para la educación: revista digital para profesionales de la enseñanza*. 2015-11-29an hemendik hartua: <http://www.feandalucia.ccoo.es/docu/p5sd7376.pdf>
- Galeana, L. (2006) *Aprendizaje basado en proyectos*. Universidad de Colima Pautas. 2016-03-10ean hemendik hartua: <http://ceupromed.ucol.mx/revista/PdfArt/1/27.pdf>
- Gil, M. E. G. (2011). El vídeo como herramienta de investigación: Una propuesta metodológica para la formación de profesionales en Comunicación. *Revista del CES Felipe II*, (13), 7. Universidad Santo Tomás. Bogotá, Colombia. 2016-03-24an hemendik hartua: <http://www.cesfelipesecondo.com/revista/articulos2011/Monica%20Garcia.pdf>
- Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Saila (2003). *Haur Hezkuntzarako gelarako proposamenak* (3-6 urte). Bilduma “Curriculum-materialak”. Haur eta Lehen Hezkuntza. 2015-11-30ean hemendik hartua: [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dia6/eu_2027/adjuntos/Haur%20Hezkuntza%20\(3-6\).pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dia6/eu_2027/adjuntos/Haur%20Hezkuntza%20(3-6).pdf)
- NNCA, (2009). *Aistear: The Early Childhood Education Curriculum Framework. Principles and themes*. National Council for Curriculum and Assesment. Dublin. 2015-11-25ean hemendik hartua: http://www.ncca.biz/Aistear/pdfs/PrinciplesThemes_ENG/PrinciplesThemes_ENG.pdf
- Olivencia, J. J. L. (2011). La educación intercultural: un compromiso educativo para construir una escuela sin exclusiones. *Revista Iberoamericana de educación*, 56(1), 13. 2016-03-13an hemendik hartua: <http://rieoei.org/deloslectores/4242Olivencia.pdf>
- Puga, M. D. P. V. (2006). Investigación de las TIC en la educación. *Revista Latinoamericana de Tecnología Educativa-RELATEC*, 5(2), 539-552. 2015-11-13an hemendik hartua: <http://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/2229253.pdf>
- Railsback, J. (2002). *Project-Based Instruction: Creating Excitement for Learning. By Request Series*. Portland: Northwest Regional Educational Lab., . 2015-11-18an hemendik hartua: <http://files.eric.ed.gov/fulltext/ED471708.pdf>
- Tejada, L. (2009) El poder educativo de los cuentos en infantil. *Revista digital Innovación y experiencias educativas*, 15. Andalucía. 2016-03-25ean hemendik hartua: http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_15/LIDIA TEJADA 2.pdf
- Walsh, C (2005). *La interculturalidad en la educación*. Ministerio de Educación. Dirección Nacional de Educación Bilingüe Internacional (DINEBI). Lima: Gobierno de Peru. 2016-03-14an hemendik hartua: http://www.unicef.org/peru/files/Publicaciones/Educacionbasica/peru_educacion_interculturalidad.pdf
- Wilson, C., Grizzle, A., Tuazon, R., Akyempong, K., eta Cheung, C. (2011). *Alfabetización mediática e informacional. Currículum para profesores*. UNESCO 2015-11-16an hemendik hartua: <http://unesdoc.unesco.org/images/0021/002160/216099S.pdf>
- Zorraquino, E. A. eta Alejandre, J. G. (2009). El placer de usar las TIC en el aula de Infantil. *Participación educativa*, 12, 110-119. 2016-05-25ean hemendik hartua: <http://www.mecd.gob.es/revista-cee/pdf/n12-asorey-zorraquino.pdf>